**Complicidades** es un programa mediante el que diferentes personas nos invitan a visitar, a modo de itinerario personal, una selección temática de obras del Museo.

Te invitamos a hacer tu aportación a este itinerario, entregando esta ficha con tus sugerencias de otras obras del Museo que lo pueden completar y tus comentarios sobre las mismas.

**Konplizitateak** programan, hainbat pertsonak, ibilbide pertsonal moduan, Museoko lanen hautaketa tematiko bat bisitatzera gonbidatzen gaituzte.

Ibilbide honetarako ekarpena egitera gonbidatu nahi zaitugu. Horretarako, ibilbidea osa dezaketen Museoko beste lan batzuen iradokizunak eta zure iruzkinak jasotzen dituen fitxa hau eman behar duzu.

**CK1**
Identificación de obras en las salas /
Lanen identifikazioa aretoetan



**Artistas de circo / Zirkuko artistak** (1934)

**LORENZO AGUIRRE**

Óleo sobre lienzo / Olioa mihise gainean. 174 x 189 cm.

**SALA 3.6 ARETOA**

Los payasos siempre están tristes en sus camerinos. Y a las bailarinas les duelen los juanetes. Todo eso mientras suena melancólico un violín, que provoca un pizzicato en sus corazones y que les trae recuerdos de su infancia —por ejemplo, el olor a escabeche en la piel de una madre—, antes de salir sonrientes a pista.

Pailazoak beti daude triste kamerinoetan. Eta dantzariek mina dute juanikoteetan. Bitartean, biolin malenkoniatsu bat entzuten da, bihotzetan pizzicato-a eragiten diena eta haurtzaroko oroitzapenak ekartzen —esaterako, amaren azaleko eskabetxe usaina—, pistara irribarretsu atera aitzin.



**Éxodo/ Exodoa** (1963)

**EMILIO SÁNCHEZ CAYUELA (GUTXI)**

Óleo sobre lienzo / Olioa mihise gainean. 161,5 x 246 cm.

**SALA 4.3 ARETOA**

La historia de la humanidad es cuadriculada y cíclica, repite obstinada la guerra, el exterminio, la persecución, todos los huracanes de la muerte. Sin embargo, las personas que huyen del horror y la oscuridad esculpen siempre sobre sus cabezas un amanecer en el que resplandece una pequeña luz de esperanza.

Gizateriaren historia zurruna eta ziklikoa da, gerra, deuseztapena, jazarpena eta heriotzaren ekaitz hilgarri guztiak errepikatzen ditu setatsu. Hala ere, heriotzatik eta iluntasunetik ihesi doazen pertsonek egunsentia zizelkatzen dute gogoan, esperantzazko argiñoak dir-dir egiten duen egunsentia.



**Contaminación / Kurtsadura** (1970-1980)

**FRANCIS BARTOLOZZI**

Óleo sobre lienzo / Olioa mihise gainean. 101,5 x 82,5 cm.

**SALA 4.3 ARETOA**

El escabeche de una lata vacía. Un cadáver de goma crucificado entre las flores. El indulto a una sentencia de muerte arrojado a la papelera... La basura. Ese será el legado de nuestra civilización. Una pira funeraria por nosotros mismos. Su humo negro elevándose al cielo.

Lata huts baten eskabetxea. Gomazko gorpua lore artean gurutziltzatua. Heriotza zigor baten indultua parperontzira egotzia... Zaborra. Hau izanen da gure zibilizazioaren ondarea. Geure hiletako su-meta. Haren ke beltza zerura igotzen ari.



**Concierto para un ahorcado / Urkatu batendako kontzertua** (1971)

**MARIANO SINUÉS**

Óleo sobre lienzo / Olioa mihise gainean. 115 x 115 cm.

**SALA 4.4 ARETOA**

Todavía pende un hilo de vida de la soga. Y el ajusticiado piensa en quienes han estado siempre a su lado, poniendo música a su miserable existencia: durante el éxodo, en el juicio farsa, llorándole en este linchamiento... A ellos dedica su último grito de rebeldía: «¡No todos los ahorcados moriremos empalmados!».

Oraindik ere bizitzaren hari bat dago sokatik zintzilik. Exekutaturik hilko denak gogoan ditu beti ondoan izan dituenak, bere bizialdi dohakabeari musika jarri diotenak: exodoan zehar, epaiketa aizunean, beregatik negarrez lintxamendu honetan... Haiei eskaintzen die errebeldiako azken oihua: «Urkatu guztiak ez gara hilko zakila tente!»



# El hilo de la vida

# Biziaren haria

NAFARROAKO MUSEOA DE NAVARRA

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra

# El hilo de la vida

Vivir en sociedad nos ha permitido subsistir como especie. La vida humana pende del hilo de la vida social y esta ha adoptado todas las formas que podamos imaginar. Las representaciones artísticas no han sido ajenas a los avatares de la vida comunitaria y se han ocupado con frecuencia de reflejar los modos de relación, las costumbres o los conflictos que nos vinculan como humanos. Incluso cuando no ha habido una voluntad expresa de hacerlo, encontramos reflejos de la vida social en los personajes representados o en los escenarios donde transcurren sus actos.

En este itinerario, de la mano de Patxi Irurzun, proponemos devanar una de las múltiples hebras que componen este hilo de la vida, entrando al tema con una lectura tan personal como la que él nos presenta.

# Biziaren haria

Gizartean bizitzeak gure espezieari bizirauten lagundu dio. Gizakiaren bizia gizarte-bizitzaren haritik dago zintzilik, eta azken horrek irudikatu ditzakegun forma guztiak hartu ditu. Irudikapen artistikoak ere ez dira ibili komunitate-bizitzaren gorabeheretatik urrun eta maiz islatu dituzte harreman moduak, ohiturak edo gizaki gisa lotzen gaituzten gatazkak. Berariaz islatzeko borondaterik egon ez denean ere aurkitzen ditugu gizarte-bizitzaren islak irudietako pertsonaietan edo egintzak gertatzen diren espazioetan.

Patxi Irurzun gidari delarik, ibilbide honek proposatzen du bizitzaren haria osatzen duten hari-zuntz ugarietako bat harilkatzea. Patxi Irurzunek irakurketa oso pertsonala aurkeztu digu gaian sartzeko.



**PATXI IRURZUN**
(Pamplona / Iruña, 1969)

Ha escrito principalmente novelas y cuentos, con incursiones en otros géneros como los diarios, los libros de viajes o el periodismo literario. Entre sus obras destacan *Los dueños del viento* o *La tristeza de las tiendas de pelucas*.

Batez ere eleberriak eta ipuinak idatzi ditu, baina beste genero batzuetan ere aritu da, besteak beste egunkariak, bidaia liburuak edo literatura-kazetaritza. Aipatzekoak dira, bere lanen artean, *Los dueños del viento* eta *La tristeza de las tiendas de pelucas*.

*www.patxiirurzun.com*



**Martirio de san Andrés / San Andresen martirioa** (finales del siglo XV / XV. mendeko bukaera)

**PEDRO ORTIZ DE OVIEDO**

Óleo sobre madera / Olioa zur gainean. 123 x 91 cm.

**SALA 2.1 ARETOA**

Lo terrible de esta imagen no son los colores vivos con los que se representa la muerte, ni los gestos de jueces y verdugos, sino las cabecitas sin rostro que se agolpan a la izquierda, esa masa brutal que se deshumaniza en el anonimato del grupo y propicia, sin sentir culpa, el asesinato legal de un hombre.

Irudi honetan lazgarriena ez dira heriotza irudikatzeko kolore biziak edo epaile eta borreroen keinuak, baizik eta ezkerreko aldean pilatzen diren aurpegirik gabeko burutxoak, masa basati hori, talde barruan eta izenik gabe gizatasuna galtzen duena eta, errurik sentitu gabe, gizaki baten hilketa legala bultzatzen duena.



**Retrato del marqués de San Adrián / San Adriango markesaren erretratua** (1804)

**FRANCISCO DE GOYA**

Óleo sobre lienzo / Olioa mihise gainean. 232,3 x 149,5 cm.

**SALA 3.5 ARETOA**

Este hombre es un arrogante. Posa altivo ante el artista. Como un marqués. Como aquellos que deciden quién vive y a quién se sentencia a muerte. Pero este hombre también está dispuesto a cambiar, a desencopetarse, pues es un lector empedernido, al que delata un detalle maravilloso: su dedo marcapáginas.

Gizon hau harroputza da. Burgoi ageri da artistaren aurrean. Markes baten gisan. Nor biziko den eta nori heriotza zigorra ezarriko zaion erabakitzen duten gizakien gisan. Baina gizon hau aldatzeko prest dago, bere handikeria apaltzeko prest; izan ere, irakurle amorratua da, xehetasun eder batek erakusten duen legez: hatzeko orri markatzaileak.



**Escabechería / Eskabetxeria**
(c. 1903)

**INOCENCIO GARCÍA ASARTA**

Óleo sobre lienzo / Olioa mihise gainean. 110,5 x 138,7 cm.

**SALA 3.6 ARETOA**

Este cuadro huele. Es un olor pegajoso, a pescado, una segunda piel en los cuerpos de las trabajadoras. Un olor que permanece y que nunca olvidará el bebé al que una de ellas amamanta y a quien la leche durante toda su vida le sabrá a escabeche.

Margolan honek usaina du. Usain likatsua da, arrainarena, bigarren larrua emakume langileen gorputzetan. Usain iraunkor hori ez du inoiz ahaztuko amaren titia edaten ari den haurrak; esneari eskabetxe zaporea hartuko dio bizitza osoan.

# Mi selección para este itinerario

# Ibilbide honetarako nire hautaketa

**TÍTULO / IZENBURUA**

**SALA / ARETOA**

**COMENTARIO / IRUZKINA**

DL/LG NA 177-2019